ERRENTERIAKO AÑARBE MENDI KOMUNALEKO IGANTZI EREMUAN (98 ETA 164 UNADETAN) EGUR USTIAPENAREN MOZKETA ETA APROBETXAMENDUA (AIAKO HARRIKO PN ETA KBE, NATURA 2000 SAREA) KONTRATATZEARI BURUZKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS RELATIVO A LA CONTRATACIÓN DE LA TALA FORESTAL Y APROVECHAMIENTO DE MADERA EN EL ÁREA DE IGANTZI (RODALES Nº 98 Y 164) DEL MONTE COMUNAL AÑARBE DE ERRENTERIA (PN Y ZEC DE AIAKO HARRIA, RED NATURA 2000).

AURREKARIAK

2021eko irailaren 9an sarrera erregistroa eman zitzaion ondorengo dokumentuari: "Egur-ustiaketa egiteko plegu teknikoa Errenteriako "Añarbe" izeneko 2.067.1 zenbakiko Herri Onurako Mendiko 98 eta 164 unadetan, Aiako Harriko Parke Naturalaren mugen barruan". Dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendiak eta Ingurune Naturaleko Zuzendariak bidali zuen.

ANTECEDENTES

Con fecha de 9 de setiembre de 2021 se da registro de entrada al documento denominado "*Pliego de Condiciones Técnicas para el aprovechamiento de madera de los rodales nº 98 y 164 del Monte de Utilidad Pública nº 2.067.1 Añarbe, perteneciente al Ayuntamiento de Errenteria y dentro de los límites del PN de Aiako Harria"*, remitido por la Directora de Montes y Medio Natural de la DFG.

KONTRATUAREN XEDEA

Helburua da Errenteriako Udalaren jabetzakoa den Añarbe herri onurako mendiko zenbait unadetako egur aprobetxamendua kontratatzea. Oinarriak izango dira plegu hau eta Mendiak eta Ingurune Naturaleko Zuzendariak bidali zuena (I. Eranskina), biek kontratu izaera izanik.

OBJETO DEL CONTRATO

El objeto es el aprovechamiento de productos maderables en varios rodales del monte de utilidad pública Añarbe, propiedad del Ayuntamiento de Errenteria, conforme al presente pliego y al que se ha remitido por la Dirección de Montes y Medio Natural (Anexo I), teniendo ambos carácter contractual.

KONTRATUAREN IRAUPENA

Egur ustiapena 2022ko martxoaren 31a baino lehen gauzatuko da. Babesturiko eremu honetan basafaunan eragin ezkorra urritzeko asmotan, lanak eten egingo dira apirila, maiatza, ekaina eta uztaileko hilabeteetan zehar.

DURACION DEL CONTRATO

El aprovechamiento maderero debe ejecutarse antes del 31 de marzo de 2022. Para minimizar las afecciones sobre la fauna salvaje de esta área protegida, los trabajos forestales se deberán interrumpir obligatoriamente durante los meses de abril, mayo, junio y julio.

HIRIGINTZA ETA INGURUMENAREN ARLOETAKO ZEHAZTAPENAK

I.- Añarben moztu beharreko kanpoko birlandaketak kokaturik daude urbaniezin gisa sailkaturiko lurzoruan kalifikazio orokorra duela. Hala ezarrita dago **Errenteriako Hiri Antolamendurako Plan**

CONSIDERACIONES URBANISTICAS Y AMBIENTALES

I.- Las repoblaciones exóticas a talar en Añarbe están situadas en suelo clasificado como no urbanizable con calificación general, según se halla establecido en el **Plan General de Ordenación Urbana**

Orokorrean (HAPO), Lehen Sektoreko Erabilerarako Zona: Aiako Harriko Interes Bereziko Area (LSEZ/5). Baso erabilera nagusitzat jotzen denez, hirigintzaren ikuspunturik proposaturiko mozketa egokitzat jotzen da.

(PGOU) de Errenteria, de Zona Uso Sector Primario: Area de Interés Naturalístico de Aiako Harria (ZUP/5). El uso forestal se considera predominante, por lo que desde el punto de vista urbanístico la tala propuesta se considera adecuada.

II.- Añarbeko herri mendiak, bertako zoruak eta hegalak 1.700 hektarea inguruko edukiera du, jabetza Errenteriako Udalarena da, eta, 108/1995 Foru Dekretuaren 1. artikuluan onartuta dago **Gipuzkoako Herri Erabilerako Mendien Katalogo** berria, eta horri atxikirik dago, 2.067.1 zenbakia duelarik. Horretaz gain, ondare demanialaren izaera juridikoa du.

II.- El monte comunal de Añarbe, su suelo y el vuelo, con una cabida total cercana a las 1.700 hectáreas, es propiedad del Ayuntamiento de Errenteria y, con arreglo al artículo 1 del Decreto Foral 108/1995, de 21 de noviembre, por el que se aprueba el nuevo **Catálogo de Montes de Utilidad Pública de Gipuzkoa**, queda adscrito al mismo, con el nº 2.067.1. Posee la consideración jurídica de bien demanial.

III.- Era berean, Añarbeko herri mendia osorik sarturik dago Aiako Harria Natur Parkearen barnean. 1995ean hala izatea izendatu zutenetik. Horrez gain, **Natur Baliabideak Antolatzeko Plana**k **(NBAP, 1995)** hainbat arau orokor ezarri ditu baso erabilerarako, 15. artikuluan jasota daudenak. Egur ustiapen hau *Babes-Eremu* baten barruan daude. Halaber, **Natur Parkearen Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planak (EKAP, 2002)** ezarri du "titulartasun publikoko eremuetan baso jarduerak bideratuko direla bertako landarediaren ordezkari izan daitekeena gordetzeko eta zabaltzeko. Ura hornitzen duten arroetan eta degradaturiko eremuetan berebiziko arreta jarriko da lurzoruak babesteko higaduraren aurka, eta basoa birlandatzeko espezierik nagusiena zuhaitz hostozabal autoktonoak izango dira".

III- Asimismo, el monte comunal Añarbe se halla en su totalidad incluido dentro del Parque Natural de Aiako Harria, declarado en 1995 y cuyo vigente **Plan de Ordenación de los Recursos Naturales (PORN, 1995)** establece una serie de normas genéricas para el uso forestal recogidas en su artículo 15, y en concreto para las Zonas de Protección, ya que este ámbito se halla así protegido. Estas masas se sitúan dentro de una *Zona de Protección.* Asimismo, el **Plan Rector de Uso y Gestión (PRUG, 2002)** del Parque Natural dicta que "en las superficies de titularidad pública las actuaciones forestales irán encaminadas hacia la conservación y ampliación de los bosques que representen la vegetación potencial del área. En las cuencas abastecedoras de agua y en las zonas degradadas se tendrá especial cuidado en la protección de los suelos frente a la erosión y las frondosas autóctonas constituirán la especie principal en las repoblaciones forestales".

Horrela, bada, titulartasun publikoko lurretan egiten diren birlandaketa guztiak bideratuko dira bertako landaredia izan daitekeena berreskuratzeko; horretarako landaketa berrietan bertako espeziea izan daitekeena erabiliko da eta baso natiboak berreskuratzeko beharrezko bitartekoak jarriko dira.

Así, todas las repoblaciones que se realicen en terrenos de titularidad pública irán encaminadas a la recuperación de la vegetación potencial del lugar; para ello en las nuevas plantaciones se utilizará la especie potencial de la zona y se pondrán los medios necesarios para llegar a recuperar los bosques nativos.

IV.- Aiako Harriko Natur Parkearen Patronatuan bere garaian aurkeztu zen "Aiako Harriko Natur Parkeko erabilera

IV.- En el Patronato del Parque Natural de Aiako Harria se presentó en su día el documento denominado "*Criterios para la*

publikoko mendietan baso naturalak lehengoratzeko irizpideak" izeneko dokumentua. Bertan jasota dago Natur Parkearen kudeaketan helburu nagusia izatea baso naturalen habitatak lehengoratzea. Horretaz gain, proposatu zen Errenterian 201 ha izatea "lehentasunezko aprobetxamendurako baso koniferoak ", eta horien artean daude enkantera dihoazten baso masa komertzialak.

V.- 2004ko abenduan, Batzorde Europarrak Añarbe sartu zuen, Aiako Harriko Natur Parkeak osorik hartzen dituen lurrekin batera, NATURA 2000 SAREAn, Garrantzi Komunitarioko Leku (GKL) gisa. Izan ere, eremu babestu horrek kontserbaziorako interes maila handia du eta egoera ekologiko onean dago. Hori guztia burutu zuten Natur Habitaten 92/43/ EEE Zuzentarauaren esparruaren barnean.

Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) gisa izendatu ondoren, 2013an bere Kudeaketa-Plana onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, kontserbazio neurriak barne.

VI.- **Gipuzkoako Mendietako urriaren 20ko 7/2006 Foru Arauaren** 51. artikuluaren arabera, Udalak enkantearen bidez lorturiko etekin gordinaren % 20º sartu beharko du Hobekuntza Funtsean. Diputazioaren Basozaintzako eta Natura Inguruneko Zerbitzuak finantza poltsa hori osatu du natura berritzeko lanak edo katalogoan dauden mendietan basoak lehengoratzeko (ikusi I. Eranskina).

LAN DESBERDINEN BALDINTZAK ETA IRISMENA

I.- Egurren aprobetxamendua egingo da kanpoko hainbat egur-landaketa komertzialek hartzen dituzten zenbait mendi guneetan, Igantzi eremuan kokatuta, Oiartzungo mugan hain zuzen: larizio pinua, alertzea eta haritz amerikarra. Mozketa honen zioa oinarritzen da aipatutako eremuaren heldutasunera iritsi izanagatik.

Bi unada dira: 98 eta 164, herri onurako mendiaren plano ofizialaren arabera.

restauración de las bosques naturales en los montes de utilidad pública del Parque Natural de Aiako Harria", en el que se recoge como objetivo prioritario de la gestión del Parque Natural la restitución de los hábitats forestales naturales. Además, en Errenteria se proponen unas 201 ha como "masas de coníferas de aprovechamiento prioritario", entre las que se encuentran las masas comerciales objeto de subasta.

V.- En diciembre de 2004 la Comisión Europea incluyó Añarbe, junto con la totalidad del territorio ocupado por el Parque Natural de Aiako Harria, como Lugar de Importancia Comunitaria (LIC), en la RED NATURA 2000, dado el alto interés para la conservación y el buen estado ecológico de esta área protegida. Ello se realizó en el marco de la Directiva 92/43/CEE de Hábitats Naturales.

Tras su declaración como **Zona Especial de Conservación (ZEC)**, el Gobierno Vasco aprobó en 2013 el Plan de Gestión y sus medidas de conservación.

VI.- En concordancia con el artículo 51 de la **Norma Foral 7/2006, de 20 de octubre, de Montes de Gipuzkoa,** el Ayuntamiento debe ingresar el 20% del beneficio bruto obtenido mediante subasta en el Fondo de Mejoras, bolsa financiera de la cual dispone el Servicio Forestal y del Medio Natural de Diputación para ejecutar trabajos de regeneración natural o repoblación forestal en los montes catalogados (ver Anexo I).

CONDICIONES Y ALCANCE DE LOS TRABAJOS

I.- El aprovechamiento de productos maderables se va a realizar en una masa forestal ocupada por diversos cultivos comerciales exóticos en el área de Igantzi: pino laricio, alerce japonés y roble americano. Esta tala está justificada por haber alcanzado la masa mencionada el estado óptimo de madurez.

Se trata de dos rodales (nº 98 y 164), en concordancia con el plano oficial del monte público.

Unada hauetan badaude larizio pinua (*Pinus nigra*), alertze japoniarra (*Larix sp.*) eta haritz amerikarra (*Quercus rubra)* espezieekin osatutako baso-masa exotikoak. Gutxi gorabehera 1.340,95 m^3 egur bolumena aterako da 12,20 hektareetan zehar.

Estos rodales acogen diferentes masas exóticas formadas por pino laricio (*Pinus nigra*), alerce japones (*Larix sp.*) y roble americano (*Quercus rubra).* Se extraerá un volumen total de madera aproximado de 1.340,95 m^3 en 12,20 hectáreas.

II.- Erabateko mozketaren eta bakanketaren bidez egingo da lana, eta horren aprobetxamendurako ez da aurreikusten baso pista edo egurra ateratzeko daudenak baino gehiago eraikitzea.

II.- La tala se ejecutará mediante corta a hecho y clara, y para este aprovechamiento no se prevé la construcción de más pistas forestales o vías de saca de las existentes.

Ondoren, baso mozketa hori egindakoan izendatuko den Añarbeko Erreserba Eremuko pagoen basoak berreraikiko dira, araudian ezarritakoaren arabera.

Posteriormente, en el ámbito de esta tala se procederá a la restauración ecológica de los bosques de haya, en concordancia con lo establecido por la normativa vigente.

III.- Babestu beharreko erreka, ibai, urtegi bideak eta bestelako interesa duten eremuetako landaredia errespetatuko da. Eta, mozketak soilik baimenduko dira mantentzea eta hobetzea ahalbideratzeko.

III.- Se respetará la vegetación existente en las zonas de protección de regatas, ríos, embalses, vías de comunicación y otras zonas de interés, autorizándose únicamente las cortas tendentes a su mantenimiento y mejora.

IV.- %50etik gorako maldetan ezin izango da inolako makina autopropultsaturik erabili pistetatik kanpo.

IV.- En pendientes mayores del 50% no podrá utilizarse clase alguna de maquinaria autopropulsada, fuera de pistas.

V.- %30etik %50era bitarteko maldetan, zuloak eta belar–sastraken garbiketa egiteko eta produktuak basotik ateratzeko erabili ahal izango da makineria.

V.- En pendientes comprendidas entre el 30 y el 50% podrá utilizarse maquinaria para realizar hoyos, desbroces, desembosque y saca.

VI.- %30etik beherako maldetan baimenduta dago makinak erabiltzea, baina ez da baimenduko lurrean eta paisaian eragina duen baso-lanik egitea, hala nola golde-hegalaz egindako zorupeberriketa, mailakaketa edo ildokaketa. Eskuko makineriaren erabilera baimentzen da edozein maldatan baimentzen da.

VI.- En pendientes menores del 30% se permite el empleo de maquinaria, aunque no se permite la realización de trabajos forestales impactantes para el suelo y para el paisaje, como subsolados con vertedera, aterrazados o acaballonados. Se permite el empleo de maquinaria manual en cualquier tipo de pendiente.

VII.- %50etik beherako maldetan eskuz egindako lanak sarituko dira.

VII.- Se primarán las labores efectuadas manualmente en pendientes inferiores al 50%.

VIII.- Debekaturik dago alde horietan, pistetatik kanpo, autopropultsaturiko makinekin lan egitea. Hala ere, alde horiek zeharkatzen dituzten sarbideak eraiki edo iraunarazteko lanak burutzeko erabili ahal izango dira horrelako makinak.

VIII.- Se prohíbe la realización de trabajos con maquinaria autopropulsada en el interior de estas zonas fuera de pistas. Se permite su empleo para la realización de trabajos de construcción y mantenimiento de las vías de acceso que atraviesan estas zonas.

IX.- Debekaturik daude lurzorua eragitea dakarten lan guztiak, landaketa zuloak eta sarbideak eraiki eta iraunarazteko lanak salbu.

HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERAREN INGURUKO EXEKUZIO BALDINTZAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, baita Errenteriako Udalak bere eskumenen baitan hartutako erabakien arabera ere. Horiek guztiak kontuan hartuta, zerbitzu hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.

Baldintza-agiri honetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza moduan ezarri dira, eta kontratua gauzatzean egiaztatu beharko dira.

Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.

1.- Hizkuntza paisaia

a) Enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzua ematean herritarrei begira jartzen dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egingo ditu, irizpide hauei jarraiki:

- Mezuak piktograma bidez egingo dira
- Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia duten hitzetan, edota oso zabalduta daudenetan (udaletxea, kultur etxea,...)
- Aurreko kasuak ezinezkoak direnean, ele bitan egongo dira, euskarari lehentasuna emanez, betiere Udalarekin adostuta.

IX.- Se prohíben todos aquellos trabajos que supongan remoción del suelo, excepción hecha del ahoyado y de los trabajos de construcción y mantenimiento de las vías de acceso.

CONDICIONES DE EJECUCIÓN EN RELACIÓN AL USO DE LAS LENGUAS OFICIALES

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6º y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, así como por lo dispuesto por el Ayuntamiento de Errenteria en el ejercicio de sus competencias. Es por ello que las lenguas de servicio serán el euskera y el castellano.

Las obligaciones impuestas en en este pliego se establecen como condiciones especiales de ejecución y deberán ser acreditadas en el marco de ejecución del contrato.

En todo caso, siempre se respetarán los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

1.- Paisaje lingüístico

a) Los rótulos, señales, notas, carteles y demás comunicaciones de carácter general que la empresa adjudicataria ponga a disposición de la ciudadanía durante la prestación del servicio se realizarán en euskera o en las dos lenguas oficiales, de acuerdo con los siguientes criterios:

- Los mensajes se realizarán mediante pictogramas.
- Cuando no pueda utilizarse un pictograma, se realizarán en euskera cuando la grafía de las palabras sea similar en euskera y en castellano o se trate de palabras de uso extendido (udaletxea, kultur etxea...)
- Si los casos anteriores no son posibles, se harán de forma bilingüe, dando prioridad al euskera, previa conformidad del Ayuntamiento.

b) Administrazioari aurkeztu beharreko dokumentazioa

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea. Hori horrela, kontratuan zehar eratu eta Udalari entregatzen zaizkion agiriak (azterlan, txosten, proiektu, aurrekontu, faktura eta bestelako agiriak) bi hizkuntza ofizialetan egingo dira:

b) Presentación de documentos a la Administración

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística. Es por ello que los documentos producto de la prestación del servicio que se entreguen al Ayuntamiento (estudios, informes, proyectos, presupuestos, facturas u otros documentos) se realizarán en los dos idiomas oficiales.

c) Hizkuntza baldintzen jarraipena

Udalak enpresa adjudikazio-hartzaileak ematen duen zerbitzuaren jarraipena egingo du kontratua gauzatzen den epe osoan, indarrean dagoen araudia bete eta herritarren eskubideak bermatzeko.

Zerbitzua ematen den bitartean, eta hizkuntzari dagokionez zerbitzuari egindako jarraipenean oinarrituta, Udalak uste badu baldintza teknikoen agirietan jarritako hizkuntza betebeharrak ez direla bete, arau-hausteen ondoriozko prozedura jarriko du martxan (kontratua amaitu edo penalizazioak ezarri, kasuan kasu).

c) Seguimiento de los criterios lingüísticos

El Ayuntamiento realizará el seguimiento del servicio ofrecido por la empresa adjudicataria durante toda la fase de ejecución del contrato, con el fin de cumplir la legislación vigente y garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

Si durante la prestación del servicio el Ayuntamiento considera que no se han cumplido las obligaciones lingüísticas establecidas en el pliego de condiciones técnicas, pondrá en marcha el procedimiento derivado de las infracciones cometidas (finalización del contrato o imposición de penalidades, según corresponda).

Errenterian, 2021eko irailaren 13an — Errenteria, a 13 de setiembre de 2021

Ingurumeneko Goi Mailako Teknikaria

El Técnico Superior de Medio Ambiente

IÑAKI AZKARATE PEREZ - 15986540E
Sin.: Iñaki Azkarate

Firmado digitalmente por IÑAKI AZKARATE PEREZ - 15986540E
Fecha: 2021.09.13 14:11:24 +02'00'

I. ERANSKINA: ALDUNDIAREN PLEGUAK
ANEXO I: PLIEGOS DE DIPUTACION